

NAPOLEON

Europa batua lortzeko lenengo ekiñaldia Carolus Aundiak (Karlomagno)´k egin eban, baiña arrezkero izan dira elburu ori lortzeko bide okerreztokatu dabenak. Iru aitatuogoguz: Napoleon, Hitler eta Lenin.

Baiña guzti oneik bide okerretik egin dabe alegin ori, gudearen bidez laterriak menperatuta. Ba-dago beste bide bat Europa batzeko Erroma´ko batzarrean asia eta urats batzuk emon dauzana, borondatezko alkartasuna nai dauana, USA´ren aunditasunari aurpegia emoteko bear dan laterrien alkarte bat nai dauana.

Aztertu daiguzan iru ekiñaldi okerrok.

Napoleon´en ekiñaldia dogu lenengoa.

Napoleon Kortzega´n jaio zan,Ajaccio errian, 1 769n. urteko dagonillaren 15n. egunean.

1 785n. urterako amaitu ebazan ikasketa guztiak eta gudaloste´ko teniente izatera eldu zan XVI Luis erregearen laguntzagaz.

Frantze´ko iraulketea sortu zanean, Napoleon ez zan liberal agertu. Korsoen askatasunaren alde baiño. Laster ikusi eban beretzat Kortzega lan-leku txikia zala eta Paris´eko arazoetara sartu zan eta 24 urtekoa zanerako gudalburu edo “general” egin zan. Urtenbidea begien aurrean eukan.

1 795n. urtean Paris´eko matxinada bideratu eban eta urrengo urtean ezkondu egin zan Josefina´gaz. Andra onek ondo ezagutzen ebazan Frantze´ko gizonik aundienak eta guztien laguntzaz urte beratan lortu eban Napoleon´ek gudarostearen buru izatea..

Laster asi ebazan gudaldiak eta laterriak menperatu ebazan: Auaustria,Italia, Ejipto...

Luziano bere anaiagaz, gudarostearen diktadura ezarri eban, “Consulado” izena ezarrita. Bera lenengo ta betirako konsul izatea lortu eban eta gero lurralde guztien alkarte orreri “Inperio” izena emon eutson. Bere irabazirik aundiena Austerlitz´eko gudaldia izan zan(1 805).

Bere angitaritzan polizien kontrol aundi bat agiri zan. Inkisiziñoak baiño gogorragao jaurtzen eban erria. Eta laterriak bere etxekoen artean banatzen ebazan.: Napoles Jose anaiari,Holanda Luis Anaiari, Wesfalia Jeronimo ri...

Inglaterra bakarrik eukan aurka eta laterri oneri blokeoa ezarri eutson.

España´n ez zan guztiz ondo ibilli, gerrilleruak aurkitu ebazalako.1 805n. urtean Trafalgar´en azpiratu ebazan itxastarrak eta inglesak eta 1 808n. urtean legorrez sartu zan Napoleon España´ra eta Jose bere anaia ipiñi eban errege. (Pepe Botellas ez-izena ezarri eutsoen).

Rusia´ra be sartu zan eta Moscou´raiño eldu be bai, baiña negua gogorra zan eta atzera egin bear izan eban: 600.000 gudaritatik 100.000 baiño ez ziran biurtu.

Aspertu zan Europa bere jokabideaz eta Leipzig´en azpiratu eben eta Elba ugartera bialdu eben erbesteratuta.

Urtenbide ori okerrekoa izan zan.1815n. urtean barriro egoan Frantze´n eta “eun urteko inperioa” sortu eban.

Azkenean europatarrak gogor jarri jakozan eta Waterloo´n azpiratu eben bein betiko (1 815-06-18) eta agintaritzaz iztera beartu eben. Santa Elena ugartera erbesteratuta, an il zan 1 821n. urtean. Batzuk pozoituta il zala diño.

OLAZAR´tar Martin´ek



BASERRIA

Jaiotetxe maitea
zuga dozu sor-miña
seme maitalentzat
seme asko dituzu
guztiz agurgarriak
zure miraritzat.

Aintzagarria zara
seme argi artean
bizia izanik,
buru eta biotza
arrigarriak dozuz
biak bat eginik,

Mundura joan dira
zume seme-alabak
euskal izateaz,
zure izen ederra
ongi zabaldu dabe
euren egiteaz.

PAULIN